

# Programazio didaktikoak eta defentsa lantzeko orientabideak



17.Jun - 16.Aug

Cod. @12-19

**Edition**  
2019

**Activity type**  
Online Course

**Date**  
17.Jun - 16.Aug

**Languages**  
Basque

**Academic Validity**  
60 hours

## MANAGEMENT

Virginia Lacarra Escorza, Goierri Eskola, Irakaslea

## Organising Committee

Fundación **BBVA**



## Description

**Ikastaro honek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Baliozkotzea izango du (1868170037 Kodea) unibertsitateaz kanpoko irakasleentzat.**

### **Irakaskuntzaren laburpena eta metodologia:**

Ikastaro honetan, ikasleen errealitatetik abiatuta Heziberri 2020 eta LOMCEn oinarritzen diren programazio didaktikoen gakoak eta aplikazioa landuko dira metodologia aktiboak txertatuz (PBL, erronkak, STEAM, arazoak). Hortaz gain, komunikazioa ere jorratzen da, ahozko defentsa baten aurrean baliabideak eskuratzeko.

Metodologiari dagokionez, ikaslearen autonomia eta partehartzea sustatuko da. Irakaskuntza ikaskuntza esanguratsuan oinarrituz.

Bakoitzaren errealitatetik abiatuta, programazio didaktiko baten gakoak bereiziko ditu ikasleak.

- 60 ordu 9 astetan zehar (astero 7-8 orduko dedikazioa)

- Hasiera: 2019/06/17 Bukaera: 2019/08/16

**Tarifa bakarra:** 120 euro

**Hizkuntza ofiziala:** euskara

## Objectives

- XXI.mendeko hezkuntza beharrei lotutako programazioaren gakoak identifikatzea.
- IKT-aren erabilerarako baliabideak ezagutzea programazioan txertatzeko.
- HH,LH, DBH eta Batxilergoko programazioak aurkezteko gakoak ezagutzea.

## Program

17-06-2019 / 26-06-2019

### **Justifikazioa, testuingurua eta marko juridikoa**

Justifikazioa, testuingurua eta marko juridikoa Atal honetan programazioaren lehenengo zatia azalduko da. Horrez gain ikastetxearen testuinguruak duen garrantziari buruz hausnartuko dute ikasleak. Heziberri 2020n oinarritutako programazioaren gakoak landuko dira. Gaia amaitzean ikasleak programazioaren atal bat aurkeztuko du.

24-06-2019 / 13-07-2019

### **Konpetentziak, helburuak eta edukiak**

Marko juridikotik abiatuta, gai honetan oinarritzko zein diziplinako konpetentziak landuko dira. Bide batez, bakoitzaren gaiari lotuta, helburuak formulatzen ikasiko dugu. Gaia amaitzean ikasleak programazioaren atal bat aurkeztuko du.

14-07-2019 / 21-07-2019

### **Metodologia eta ebaluazioa aniztasuna aintzat hartuta.**

Hainbat metodologiei buruz hausnartuko dugu, ikasleak horiei buruzko bisio globala izan dezaten. Metodologia horien artean, PBL, arazoak, erronkak, eta flipped learning-en enfokea ezagutuko dira. Beste alde batetik, aniztasuna ere nola jorratu daitekeen azalduko da. XXI. mendeko hezkuntza eredu inklusiboari erantzuna emateko. Azkenik, ebaluazioari dagokionez, rubrikak aztertuko dira. Gai honetan ez da lanik aurkezten

22-07-2019 / 16-08-2018

### **Unitate didaktikoak eta defentsa**

Atal honi buruzko gakoak landuko dira eta gaia amaitzean ikasleak UD bat landuta aurkeztuko du.

## Directors



**Virginia Lacarra Escorza**

Goierry Eskola, Irakaslea  
(Donostia)

---

## Teachers



**Virginia Lacarra Escorza**

---



## Registration fees

**REGISTRATION**

**UNTIL 19-06-2019**

[Single rate](#)

120,00 EUR